

NAFARROAKO ITSASOAREN GEROA?

Xabier Ezeizabarrena

Abokatu

Prestigeiko gaia gero eta luzeago bihurtzen ari da eta azken finean gure aurrean frogatzen da nazioarteko zuzenbidearen huts eta arazo nagusienak, batez ere gure Nafarroko itsas aldeko zati guztietan.

1969 eta 1982ko Itsaso-garraioaren Itunak onartuta, Estatu eta enpresa batzuek nazioarteko legeak eskeintzen dituen titulu batzuk erabili dituzte horrelako arazoetatik alde egin edota berauek baztertzeko. Helburu horrekin, ingurumeneko babesari buruzko arau gehigarriaren titulua (Konstituzioaren 45 eta 149.1.23. atala, Espainako kasuan) eta itsasoko ingurumeneko baliabideak ere baldintzatzen ari dira, horien adibide nazioarteko erakunde edota Estatu gehienien jarrera.

Aurrerago ikusiko denez, itsasoa babesteko politikak ez dira nahastu behar arrainen ustiapenerako erabilitakoekin, eta Estatu bakoitzak ez du bere subiranotasuna zertan erabili bere gizartearen aurrean. Bestalde, itsasoko itunak eta Europako zuzenbidea, aginpideei dagokienez, itsasoko legeak eta gerorako baldintzen determinazioan aginpideen erabilera zatitua galarazten duen printzipioetan oinarrituta dago: badirudi kudeaketaren batasunaren printzipioa ez dugula hemen batere ikusten, zeren eta Estatu bakoitzaren borondatea ikusi ez dugulako gure baliabideak eta eskubideak benetan babesteko.

Aginpideen beste hainbat gaietan bezala, oraingo honetan ere errekursoaren izaera dinamikoak administrazio eskudunen arteko lankidetzarako formulak garatzea eskatzen du; horrela, aginpideak alor honetan elkartzea ere maiz gertatzen da, baina zailtasun nagusia azken erabakia hartzean datza, batasunaren eta elkartasunaren formulek porrot egin dutenean. Honela gertatzen denean, erabaki bat hartu behar da, eta hori ez da erraza izango Estatu bakoitzak bere irizpide propioak jartzen baditu, eta horregatik logiko eta praktikoagoa izango da itsasoko nazioarteko administrazioak hitza hartzea. Gure aldean, bereziki, euskal arrantzako gizonak eta emakumeek helburu hori lortu behar dutela bizimodu berezi eta historikoa geure aldean eta geure bidean jarraitzeko.

Horrelaxe dio, hain zuzen ere, Nazioarteko Auzitegiak. Horrela bada, Estatuko erakundeek ingurumeneko babes minimoa finkatzeko duten aginpide legitimoa errespetatu egin behar dute. Azken finean, nahitaezko betebeharrak legala da eta bere aginpidezko titulu ezberdinetan eta aldi berean toki fisiko berean elkar daiteke, antzekoak diren beste betebeharrak batzuk osatuz, bereziki itsasoari begiratzen.

Hau guztia, Legearen oinarri diren eta bere baitan Ingurugiroaren Europako Komunitatearen Zuzenbidearen edota Nazioarteko Zuzenbidearen oinarriko printzipio batzuk gordetzen dituen helburu edo xede batzuk aplikatuz burutu nahi da. Horien artean, pertsonen eta ingurugiroaren babes maila altua lortzea, gerta daitezkeen kalteak aurreikusiz, minimizatuz, zuzenduz eta kontrolatuz; Garapen jasangarria bultzatzea, hazkunde ekonomikoa eta ingurugiroaren babesa uztartuz.

Esparru nagusi barruan hau aplikatzeko nazioarteko erakundeak onartu behar diren ingurugiroan, segurtasunean eta pertsonen osasunean eragina izan dezaketen jardura guztiak, publiko nahiz pribatuak, bere menpe hartzen ditu asmo hauek. Bestalde, Estatu eta nazioarteko erakundeen arteko aginpideen banaketari dagokionez, oinarriko arautegia jasotzen du. Bertan, Estatuaren instituzioei dagozkien jardura administratiboetan autonomiak errespetua gordetzea eskatzen du, eta horrek badu garrantzia eskuartearen dugun gai honetan, eta horrela egiaztatu dugu baita nazioarteko jurisprudentzia.

Gertatzen dena da, eta hori garbi ikusi genuen irailean Johannesburgon eta geroxeago Galizialdean "Prestige" istripuarekin batera, Estatu bakoitzak jarraitzen du bere baliabideak

babesten bere subiranotasunak eskatzen dielako bere geroa ere begiratzen. Bitartean, ingurumenak, eta itsasokoa berezia da alde hortatik, ez du zer ikusirik soberatasun klasikoarekin eta Estatuaren holako elkartasun gabeko ikuspuntuarekin. Horregatik, badaukagu geure aurrean beste arrazoi nagusi bat gure itsasoko subiranotasuna berreskuratzeko. Beti bezala, baino azken finean, geure eskubide guztiak sendo eta zehatzik babesteko.